



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko urria · 332. alea

TOKIKOM

A photograph of a woman with short brown hair, wearing a blue and white striped t-shirt, leaning over a field of green plants. She is looking down at the plants, and her hands are near the ground. The background is filled with more green plants and wooden stakes.

Gaztañerre prestatzen



AURKIBIDEA

4 Bote prontuan Alberto Goenaga

6 Begira Katalunya

8 Zer berri Aktualitateko albisteak

14 Argazki bidez Urriko argazkiak

18 Erreportajea Gaztañerre azoka

22 Kirola Soraluze Futbol Taldea

24 Kultura Beldur gaua

26 Nondik nora Lola Couso

28 Sakonean Maite Narbaiza

30 Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

Iritzia

3 Neuretik Nerea Orbea *Posturismo egokitua*

16 Gutunak Tokikom *Kataluniako hedabide publikoen defentsan*

16 Hausnarketa *Gripearen kontrako txertaketa*

17 Zir(r)ika *Biribilgunea*

17 Puntua Maite Quintanilla *Jolastia da*



**Pil-pilean
herri komunikabidea**

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Telefonoa

943 75 13 04
Erredakzioa Ubane Madera
Egoitz Unamuno 605 706 086
egoitz@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Azala Fernan Oregi
Zuzentzailea Leire Ginea

Inprimategia

Gertu Koop.
Banaketa Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua: SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko
UDALA**

“Posturismo” egokitua



Nerea
Orbea

Nahi baino gehiagotan biltzen gara, gero eta herritar gehiago, genero indarkeriari aurre egiteko. Asko dira azken hilabeteotan berdintasunaren alde entzuten ditugun herrikideak eta urrunagoko politikariak ere. Noizbehinka, ikusten ditugu aktore edo pertsonai famatuak, parekidetasunaren izenean ekitaldietan parte hartzen. Ia egunero, hedabideetan, emakumezkoen kirol emaitzak, argazki eta guzti, ikusi eta jasotzeko aukera zabaldu zaigu.

“Ez dugu ahaztu behar, ordea, atzo bertan azaldu zigutela feminismoa eta matxismoa ez direla antonimoak, eta oraindik parekidetasunerako lan handia geratzen zaigula herri “garatu” honetan”

Itxurakeri eta “postureo” garai hauetan, beste haize batzuk igartzen dira; ikus ditzakegu haize-errotak besoak pixka bat mugitzen; haize-orratzak Europa iparralderantz begira daudela, eta erraz sinetsi dezakegu harantz goazela.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, atzo bertan azaldu zigutela feminismoa eta matxismoa ez direla antonimoak, eta oraindik parekidetasunerako lan handia geratzen zaigula herri “garatu” honetan: lanak eta lanbideak proportzionaltasunez asetzea, deportistek irabazietan

enpatatzea, soldatak balioan eta kopuruan raseatzea, inbisibilizazioa ezabatzea, amamaren eta aitxixaren pentsioak parra egitea, kristalezko sabaiak tindatzea, publizitate sexista moretzea, hizkuntzen erabilera errespetatze@, denbora librearen banaketa demokratizatzea, “Barbie”ak “Berbia”n trans-aldatzea, eremu publikoak kupo gabe betetzea, medikamentuak hormonon eraginpean aztertzea, feminismoaren beraren mediatizazioa Kataluniarekin parekatzea.... esaterako.

Orduan, oraindik, agian, norbaitek pentsa dezake benetako ipar haizea sartu dela gure negutegian, baina haize erroten dantza horiek ez ote dira espejismo hutsa? Edo bestela, nola iritsi gara itxurazko aldaketa honetara? ... Instagrameko zeinek jarri du aire egokitua topera?

Alberto Goenaga Juez

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Aurtengo denboraldian hartu du Soraluze Futbol Taldean presidente kargua Alberto Goenagak (Soraluze, 1963), Cenzualen lekua betetz. Urtebeterako konpromisoa hartu du hasieran, “nahiko larri nabil denbora aldetik, familia eta lan kontuengatik”, esplikatu du. Presidente izateaz gainera, diruzain izaten segituko du, laugarren urtez.

Zeintzuk dituzu zuzendaritzako kide?

Gorka Zubiaurre da lehendakari-ordea, Javi Isturitz kirol zuzendaria eta Manu Caballero eta Miguel Gil kirol materialaren eta publizitate arduradunak. Beste hiru pertsona ere badaude futbol eskolako koordinatzaile modura: Alex Rodriguez, Ruben Fernandez eta Julio Rascon. Eta bada jendea, lehen ere batzordeko kide-edo izandakoak, orain ere laguntzen.

41. urtea du klubak, zelako osasun egoera du?

Atzera begiratuta, pixkanaka behera doa. Baina aspaldiko egoerarekin konparatuta, berriz, Plazentzia batek maila guztietan taldea izatea gehi futbol eskolan beste lau talde izatea luxua da. Antzina ekipo bakarra, edo asko jota bi zeuden. Orain ditugu zortzi talde maila guztietan. Baina behera doa eta herri txikietako jokalariai behar dira, ze mutikoak lortzea geroago eta zailagoa da. Eta Antzuolan, Bergaran... soberan dituztenekin gabilitza.

Erregional mailako taldea erori egin da?

Bai. Bi ekipo izatea oso zaila zen. Gazteei beste aukera bat emateko sortu zen, baina jokalarien adina gora joan da, ez da apuntatu gazte asko eta bi ekipo sortzeko 45 jokalaria inguru behar dira.

Zenbat mutiko dituzue?

130 inguru. Horregatik da zaila kudeaketa. Jende gutxi gaude eta lan handia da.

Borondatezko lana da?

Bai, jendeak pentsa dezake zerbait kobratzen dugula edo beherapenak ditugula edo... eta ez da horrela. Soran gabiltzan boluntarioen %85 gurasoak gara.

Emakumeen parte hartzea zelakoa da?

Soraluzen oso zaila da nesken taldea sortzea. Orain bizpahiru urte etorri zen talde bat eskean, baina ez zen nahikoa neska elkartzetik lortu. 10 edo 11 ziren. Baina, adibidez, batzordean Lidia Fernandez dago. Eta futbol eskolan bada jokalaria bat. Iaz bi zeuden, baina bat Eibarrera joan da. Eta orain dela zazpi urte-edo egon zen nesken futbol talde bat eta emaitza onak lortu zituen.

Entrenatzaileei dagokienez, zein da egoera?

Bete dugu, baina oso-osoa larri. Azken momentuan sortu ditugu bi ekipo: kadeteak eta gazteenak, jendez oso justu. Bergarako klubak lagundu digu. Batean dira 17 jokalaria,

eta bestean 16 bat. Arriskua hartu dugu. Baina helburua zen taldeak osatzea. Zenbat eta gehiago, hobeto. Eta entrenatzaileekin ere nahikoa lan. Ze gaur egun gehienok egiten dugu lan txandaka, eta lehen pertsona bakarrarekin moldatzen baginen, orain gehiago behar ditugu, txandak direla-eta. Horiek ere, asko dira jokalaria ohi izandakoak.

Hortaz, esan daiteke gurasoen eta jokalaria ohien inplikazio barik nekez existituko litzatekeela Sorarik?

Duda barik. Bueno, aurtun fitxaje nahiko polita egin dugu futbol eskolarako: Mikel Calvo. Eibar taldean ere egiten du lan eta hemen futbol eskolako koordinatzaile ipini dugu.

Eta ekonomikoki, zela dago klubak?

Nahiko ondo. Ni sartu nintzenetik hona urtero zenbaki positiboak izan ditugu. Lehen gorriak zeuden. Babesleak, Udala, Reala, publizitatea... hortik lortzen dugu.

Instalazioak egokiak dira?

Zelaia ondo dago. Baina aldageletan ez da mantenerik egin. Eta dago dena jausten. Baimena badugu lanak egiteko. Eta ea berehala hasten garen. Nahi dugu urtea amaitu aurretik egin. Orain ezin da aldageletara sartu, eta iaz abiarazi genuen Gabonetako txapelketa egin nahi dugu berriro ere, eta ordurako aldagelak konponduta egotea nahiko genuke. Akaso guk aurreratuko dugu dirua eta gero ordainduko digu Udalak... ez dakigu, baina aurtun konpondu nahi ditugu. Iaz teiltatua konpondu genuen.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Helburu nagusia da mantentzea gure maila naturala: Gorengo maila (lehenengo Preferentea).

Herrian harrera ona duzue?

Ikusle kopurua jaisten doa, baina herrian laguntzak-eta lortzen dira, eta nahiko ondo.

Baduzue berritasunik?

Mikel Calvoren fitxajea. Eta Gorengo mailako entrenatzaile aldaketak (Ruben Leonardo, Ermuakoa) ekarriko ditu jokalariai aldaketa asko. Recio da bigarren entrenatzaile eta Caballero, delegatua. Bestalde, pentsatzen dut futbol eskolan ordaintzen den kuota altuegia dela, eta sartu nintzenetik jaisten joan naiz. Lehen ordaintzen zen 170 euro, eta aurtun 150. Asmoa da gehiago jaitea.

Hizkuntzari dagokionez, klubak hitzarmena sinatu du euskararen erabilera bultzatzeko...

Urtero berritzen dugu hitzarmena. Han zehazten da entrenamenduetan eta partiduetan, infantil mailara arte euskara erabiltzea, eta berorren erabilera bultzatzea; hori egiten dugu. Junta barruan aldatzen gabilitza gauza txikiak: idatziak, fitxak, errifak... elebitan ateratzen dugu. Gauza txikiak egiten, poliki-poliki bagoaz aldatzen.

**“Plazentzia batek
maila guztietan
taldea izatea
gehi futbol
eskolan beste
lau talde izatea
luxua da”**

ALBERTO GOENAGA JUEZ



Babes-adierazpenak

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Kazeroladak, elkarretaratzeak, adierazpen instituzioanala, esteladak balkoietan... Azken asteotan, Soraluzen ere ekimen ugari egin dira Kataluniari babesa adierazteko, eta, batez ere, Espainiako Gobernuaren jazarpena arbuiatzeko.

Hiru bat urte izango dira *Nens del Vendrel* castellers taldekoak herrian izan genituela. Orduko hartan, kataluniarrek zerurainokoak ziruditen giza-gazteluak altxatu zituzten zubian, eta, ziur, batek baino gehiagok sentitu zuela emozio berezia sabelean, batez ere, ume hura jendezko dorre haren puntara igo eta eskua altxatzen ikusi zuen instant labur hartan.

Gertatzen dena gertatzen dela, kataluniarrek, dagoeneko, altxatu dute euren inoizko giza-dorrerik handiena munduaren aurrean, izan daitekeen modurik demokratikoenean gainera.





80 urtetik gorakoen topaketa eta omenaldia



Juan Jose Alberdi eta Maritxu Garate.

Azaroaren 4an, zapatuan, 80 urtetik gorako pertsonen topaketa egingo dute Itxaropena Jubilatuen Elkarteak. Bazkaria eta omenaldia egingo dituzte egun horren bueltan, 14:00-14:30ean hasita. Bazkariari dagokionez, elkarteko bazkide diren 80 urtetik gorako pertsonen parte hartuko dute. 110 lagunendako lekua dago (elkarteko batzordekideak eta udal ordezkariak tarteko), eta leku guztiak beteta daude dagoeneko. Menuaz Gastronomía Vasca catering enpresa arduratuko da, Leioako Ostalaritza Eskolakoak, alegia.

Alberdi eta Garate

Omenaldiari dagokionez, berriz, aurten, Juan Jose Alberdi *Belokiri* (1925eko abenduaren 15ean 92 urte beteko ditu) eta Maritxu Garateri (1923ko uztailaren 4an 94 urte bete zituen) egokituko zaie aitortza hori jasotzea. “Txandaka egiten dugu, adinez nagusienak direnak omentzen ditugu, baina helburua da guztiak omentzea”, kontatu dute Maria Luisa Gantxegik, elkarteko presidentea, eta Luis Mari Kortabarria presidente-ordeak. Ohi duten moduan, udal ordezkariak, bazkalostean, opari bereziak

emango dizkiete Alberdiri eta Garateri. Hain justu, Quintanilla arduratuko da une hori musikaz girotzeaz.

80 urtetik gorakoen topaketa horixe da azaroan Itxaropena elkarteko bazkideek duten hitzordua. Hurrengoak abenduan izango dira: karta-joko txapelketa, Santo Tomas eguneko luntxa eta 30 otarren zozketa...

Guztira 619 bazkide

Soraluzeko erretiratuen elkarteak 619 bazkide ditu gaur egun. Horien artean, 236 dira 80 urtetik gorakoak. “Nahi duena izan daiteke bazkide, baita erretiratu ez direnak ere; horiek bazkide babesle izaten dira. Kuota ordaindu beharra dago, besterik ez: urtean 10 euro. Eta horren truke, eskubide jakin batzuk izaten dira: txangoetara joateko, elkarteko sukaldea erabiltzeko, podologo eta ile-apaintzaile zerbitzuak erabiltzeko... Oro har, egiten diren ekintza guztietarako. Horrez gainera, elkarteko tabernako prezioak ohiko tabernenak baino merkeagoak dira, %10-%15 merkeagoak, eta tabernara edozein herritar etor daiteke”, esplikatu dute Itxaropena Jubilatuen Elkarteak batzordeko ordezkariak.

Parisera joateko deia egin du Sarek

ETAren armagabetzea bideratu zuten “Bakearen Artisauak” mobilizazio handia iragarri dute abenduaren 9rako. Mobilizazioa Parisen egingo dute, eta helburua izango da Frantziako Gobernuaren interpelatzea, bake prozesuan parte hartu eta amaiz dezan Frantzian preso dauden euskal herritarrek jasaten duten “salbuespen egoera”. Hain zuzen, aste honetan bertan iragarri dute Ipar Euskal Herriko ordezkariak eta Frantziako Justizia Ministerioak “lan esparrua” ireki dutela euskal presoek egoera aztertzeko.

Sarek dei egin die soraluzetarrei Pariseko mobilizazioan parte har dezaten, eta jakinarazi du tenez eta autobusez joateko sarrerak eskura daitezkeela 635 72 06 44 zenbakira deituta (Iraultza). Hitzaldia antolatu du herrian, xehetasunen berri emateko: azaroaren 7an, 18:30ean, Antzokian.

Ingurumen teknikaria kontratatuko du Udalak

Sei hilabeterako eta lan-jardun partzialaz, Ingurumen eta Jasangarritasun Teknikaria kontratatuko du Soraluzeko Udalak. Langabeei zuzendutako eskaintza da, hain justu, Lanbidek ematen dituen dirulaguntzak tarteko, udalak eriten duena. Astelehenean, urriaren 30ean, bukatuko da izena emateko epea. Elgoibarren egin behar da hori, Lanbidek duen bulegoan.

Egunerokoa zailtzen duten oztopo arkitektonikoak identifikatu nahian



Udaleko, eskolako, anbulatorioko... eragileak sentsibilizazio tailerlean.

Soraluzeko espazio publikoa (kaleak, plazak, pasabideak, espaloiak, zerbitzuak...) bertako bizilagun guztien beharretara ahalik eta ondoen egokitzeko helburuarekin, Mapa Morea osatzeko lan-saioak egiten dabilta Soraluzen. Bestela esanda, eguneroko bizitza eta elkarren arteko harremanak zailtzen dituzten oztopoak herritarren eta eragileen parte-hartzearen bitartez identifikatu eta horien mapa osatu nahi du Udaleko Parekidetasun Batzordeak, ahal den neurrian, gero horiei konponbidea emateko.

Bada, hori egiten dabilta genero ikuspegia baliatuta. Izan ere, “genero ikuspegia duen hirigintzaren abiapuntua da hirigintza ez dela neutroa, eta gure herri eta auzoak antolatu direla gizarte patriarkalaren baloreak aintzat hartuta; eta espazioen forma fisikoak laguntzen duela balore horiek mantentzen eta errepikatzen. Horren aurrean hirigintza feministak proposatzen duena da pertsonak jartzea hirigintzako erabakien zentroan”, esplikatu du

Col-lectiu Punt.6 Kataluniako elkarteak, hamar urte baino gehiago hirigintza ikuspuntu feministatik birpentsatzen diharduen elkarteak. Soraluzeko Mapa Morea ikuspegi horretatik osatu nahi dute, hain justu.

Udalerrira etorrita eta bestela esanda: Soraluzeko plazak egokiak dira guztiendako, umeendako zein helduendako? Nahikoa jarleku dituzte? Edo nonbaiten (ludoteka kanpoan, adibidez) umeen zain egon beharra izaten denean, leku hori ondo egokituta dago? Kaleei begiratzeko badiogu, berriz, edozein bizilagun ibil daiteke kalean oztoporen batekin topo egin barik? Espaloiak nahikoa zabalak dira? Badago nahikoa iturri? Zirkulazioarengatik bada puntu arriskutsurik? Edo argitasuna aztergai hartuta, badago segurtasun falta eragiten duten puntu beltzik ilunegi direlako?

Halakoak dabilta aztertzen urrian egin dituzten sentsibilizazio saioetan. Orain, lan-saioak hasi eta helburua da urte amaierarako mapa osatuta egotea.

Hasi dira herritarrak gripearen aurka txertatzen

Astelehenean hasi ziren Soraluzeko anbulatorioan gripearen aurkako txertoa hartzeko txandak ematen. Abenduaren 23ra arte luzatuko dute aurtengo kanpaina, eta ohi den moduan, arrisku-taldeetan daudenei egin diete txertoa hartzeko dei zuzena: 65 urtetik gorako pertsoneri eta gaixotasun kronikoren bat dutenei, baita haurdun dauden emakumeei zein osasun zentroetako langileei ere. Txertoa anbulatorioan zein etxean hartzeko txanda eskatu beharra dago: 900 20 30 50 zenbakira edo 943 75 23 00 zenbakira dei daiteke, edo Internet baliatuta txanda eskatu.

Odol emaleei aitortza



50 aldiz zein 25 aldiz odola ematearren 10 plazentziatar omendu zituzten zapatuan, urriaren 21ean Eibarren. Aitortza modura domina eta diploma bana eman zizkieten. 50 bider odola ematearren, Jesus Mari Arruabarrenak, Juan Enrike Usobiagak, Jose Ramon Farinasek, Jose Antonio Gonzalezek eta Jose Markos Arizagak jaso zuten aitortza. Eta 25 aldiz ematearren, berriz, Fernando Alberdik, Jose Luis Leonek eta Arrate Iparragirrek.

KPI besteko igoera aplikatuko diete tasei eta zergei 2018an: %1,8

Ibilgailuengatik, hilerriko zerbitzuengatik, etxebizitzengatik... Oro har, %1,8 gehiago ordaindu beharko dute herritarrek datorren urtean zerbitzu publikoengatik. Bi salbuespenekin: kiroldegiaren urteko abonua eta hondakinen bilketa-zerbitzua. Bi horiek %5 eta %8 igoko dituzte, hurrenez hurren (azalpenak beheko tauletan).

Urriko osoko bilkuran onartu zituzten 2018ko Ordenantza Fiskalak, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin.

EH Bilduren abstentzioa

Kiroldegiko bonoei aplikatuko dieten aparteko tasak eragin zuen, hain justu, EH Bilduren abstentzioa. Unai Larreategi bozeramaleak azaldu zuen dauden defizitak tasen igoerarekin orekatu nahi izatea ohikoa izan arren, horrek ekar lezakeela familiek “birpentsatzea” kiroldegiko bazkide egin edo ez. Esplicatu zuen aurreko legealdian ikusi zutela halako neurriek ez zutela “funtzionatzen”, eta, besteak beste, gehitu zuen ildo



nagusia izan beharko litzatekeela zerbitzuak erakargarriago egitea eta bazkide gehiago lortzea defizita txikitzen joateko.

Bestalde, Ordenantza Fiskalen barruan honako puntu hau ere ez zuten onartu: EAJk eskatuta, etxebizitza hutsei IBIaren errenergua kentzea. EH Bilduk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten.

Puntu horren ganean, EH Bilduk iaz udalbatzak hartutako konpromisoa mahaian ganean jarri zuen: errenergua horren bitartez batutako dirua herrirako etxebizitza politikan inbertitzea. “Iazkoa ez da aurtengo aurrekontura gehitu; beraz, konpromisoa ez da exekutatu”.

Patricia Borinaga sozialistak erantzun zion, hauteskundeak

Kiroldegiko tasa, salbuespen:

Kirol tasei %5eko igoera aplikatuko diete, baina urteko abonuei baino ez. Gainontzeko zerbitzuei igoera orokorra aplikatuko zaie. Aparteko igoeraren arrazoiak bi dira: zerbitzu horren defizita (60.000 euro inguru urtero), gehi urte bukaeran kiroldegiko zerbitzuen kudeaketa lizitatuko dutela. Lizitazioari dagokionez, eta, bereziki, jakinda bertako langileen soldatak urteotan ez direla igo, helburua da lizitazioaren prezioa 46.000 eurotan handitzea. Horrela, udalbatzarrak %5eko igoera aplikatzea erabaki zuen, bi kopuru horiek batuta sortuko litzatekeen “zuloa” orekatzeko.

Osasuntsu dago urteotan kiroldegia. 935 bazkide ditu orain “baina badago jende piloia ikastaroetara datorrena baina ez dena bazkide”, jakinarazi du Maria Gallastegik udal kirol teknikariak. Urteko bonua dutenek igerilekua, gimnasioa eta rokodromoa erabiltzeko eskubidea dute. Eta ikastaro guztiak ez abonatuendako baino merkeago dira. Zerbitzua BPXport enpresak kudeatzen du, Udalaren babespean. Kudeaketa berria ezarri eta Udalak inbertsioak egin zituenetik (igerilekuan inbertsio handiak egin zituen, besteak beste), abonatu kopurua handitu egin da, orduan baino ia 400 bazkide gehiago daude orain.

Hondakinen tasa:

Hondakinen tasa %8 handituko dute, zerbitzu horrek mankomunitateari eragin dion defizita ezabatzeko asmoz: 37.000 euro. 2018an zorra kenduko dela jakinarazi zuen alkateak. Jakinarazi zuen baita ere, urte amaierarako errefusa batzeko edukiontzia ipiniko dituztela. Horrek ekarriko du edukiontzi berdeak kentzea. Hortaz, egongo dira edukiontzi marroiak (bio), txartelarekin; eta errefusarendakoak ere txiparekin. Horiez gain, edukiontzi horiak eta urdinak ere egongo dira.

Urriko osoko bilkuran onartu ziren 2018ko Ordenantza Fiskalak. Argazkian, udalbatzako kideak bozkatzan.



tarteko, atzeratu egin zaiela lanketa, baina badihardutela gaia lantzen, etxebizitza huts horiek merkaturatzeko helburuarekin.

Ildo beretik, alkateak jakinarazi zuen errekaraguen informazioa bidaltzeaz bat, etxebizitza hutsen jabeek etxebizitza merkaturatzeko dituen aukeren gaineko informazioa ere helarazi dietela.

Beste zerga batzuk:

- Nitxo, panteoi edo lurrean hobiratzea: 407,20 euro.
 - Errautsen kaxen ehorzketa. 91,62 euro.
 - Ibilgailuak garabiak eramatearren: automobilak, turismoak, kamioiak, atoiak, karabanak. 95,61 euro.
 - Kiroldegia: famili abonua (gurasoak eta 23 urte arteko seme-alabak ikasle edo langabetuak), 215 euro.
- Ibilgailuak:
- 12tik 13,99 zaldi fiskal bitartekoak 119,31 euro.
 - 14tik 15,99 zaldi fiskal bitartekoak, 177,32 euro.

"Arratsaldeetan ere zabaltzen hasi gara"

Juan Mari Gurrutzagak (Mendaro, 1958) negozioa Sorraluzen zabaldu zuen orain dela 32 urte. Maite Laskurainekin eta Mariasun Akizurekin dihardu lanean. Eta joan den asteaz geroztik berrikuntza nabarmena egin du azoka plazako arrandegian: arratsaldez ere zabaltzen hasi da. 08:00-13:00etara eta 17:30etik 20:00etara.

32 urte eta gero erabaki duzu arratsaldeetan ere zabaltzea, zer dela eta?

Belaunaldi gazteak erakartzeko. Ze gazte jendea falta da, eta ez dago erreleburik.

Beste ohitura batzuk dituzte?

Bai, aldatu da zeharo. Gazte jendeak beste kultura bat dauka. Gehienek erosteko beste modu bat dute. Internetez, edo zentro handietara joan, karga guztia hartu eta etxera.

Ordutegi berriaren estreinaldia egin duzu dagoeneko, zela?

Flojo. Baina hori aurreikusita dago. Denbora beharko dugu. 32 urtean arratsaldez itxita egon eta gero, jendeak ohitura aldatu egin behar du. Horri buelta ezin zaio egun batetik bestera eman.

Ze ordutegi duzu?

08:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:00etara.

Badira ordu batzuk...

Ba pentsa, 04:00etan hasi eta 20:00ak arte... luze egiten da. Bost egunean zabaltzen dugu arrandegia, horietatik lautan arratsaldez. Neskek bi egunez zabaltzen dute eta neuk lau egunez (arratsaldetik).

Eta horrenbestera lanik badago?

Ez dakigu, baina hasieran egon egin behar. Gero ikusiko dugu, akaso arratsaldetan lau egunez zabaldu beharrean, astean bi egunez zabalduko dugu... Joerak asko aldatu dira. Orain egunik gogorra martitzena da. Eta orain dela 20 urte, berriz, barikua eta zapatua ziren. Hori zeharo aldatu da. Kalean ere, jendea gehiago egoten da...

Adibidez, pintxo-potean dabilena ez doa etxera afaltzera, eta halakoak igarri egiten dira. Edo jaunartze, bataio... ospakizunak lehen elkarteetan egiten ziren. Eta orain ez.

Orokorrean, zelakoak dira Plazentziako bezeroak?

Onak, oso onak. Belaunaldi gazteak ez datozela da kontua.

Haiei zer esango zenieke?

Has daitezela arraina jaten, osasuntsua dela, berau da, nire ustez, elikagairik osasuntsuena.

Nondik ekartzen duzu arraina?
Ondarrutik eta MercaBilbaotik.



Juan Mari Gurrutzaga plazako postuan, martitzean.

Harrera: datozen bizilagun berriak plazentziatar bilakatzeko zubia



Pil-pileaneko eta Udaleko ordezkariak herriko hainbat eragilerekin, urriaren 4an.

Udalerrira datozen bizilagunak bertakotzen laguntzeko, *Harrera protokoloa* lantzen dihardute Udalak eta Pil-pilean Euskara Elkartek, Euskaltzaleen Topagunearen laguntzaz. Urte amaierarako osatzeko helburuarekin, azaroaren 14an dute 4. lan-saioa (Elkartegian, 18:30ean). Bertara gonbidatu dituzte herriko eragile guztiak, helburua delako ahalik eta parte-hartzerik handienaz lantzea protokoloa.

Helburua da etorri berriei azaltzea Soraluzen ze elkarre dauden, azpiegiturak, erakundeak, euskara ikasteko bideak, ohiturak, hezkuntza aukerak... Bestela esanda, datozenei lagundu ahalik eta modurik errazenean herriko egunerokora eta errealitatera egokitzen.

Gaur egun, Soraluzen 3.914 lagun daude errolatuta. 3.531k nazionalitate espainiarra dute. Beste 383k, berriz, bestelakoren bat: Errepublikan Dominikarra: 4; Senegal: 4; Maroko: 188; Bangladesh: 8; Argelia: 14; Ekuador: 9; Pakistan: 35; aberri "bakoak" (sahararrak gehienbat): 24; Portugal: 13; Venezuela: 4; Peru: 1; Errumania: 22; Nikaragua: 22; Bolivia: 7; Brasil: 8; El Salvador: 2; EE.UU.: 1; Ucraina:

3; Argentina: 3; Belgika: 1; Honduras: 2; Italia: 1; Mauritania: 2; Colombia: 1; Mauricio: 1 eta Alemania: 3.

Gonbidatua, etxera

Ildo beretik, azaroaren 19an *Bizilagunak egitasmoa* egingo da. Estereotipoak eta aurreiritziak hautsi nahi dituen bazkari multikulturalak egitea du helburu. Proposatzen da norbere etxean beste kultura bateko pertsonak hartzea gonbidatu moduan, elkarrekin jatordu bat egiteko, edo norbera joatea beste etxe batera gonbidatu moduan. Izena emateko: Pil-pilean Euskara Elkartean (Maialen Elizburu). Telefonoz: 943 75 13 04 edo posta elektronikoz: maialen@pilpilean.eus.

Ikus-entzunezkoa

Bestalde, Pil-pilean Euskara Elkartek, Auzoko ekimenaren bidez *Soraluzeko hizkuntza aniztasuna* ikus-entzunezkoa argitaratu du. Hizkuntza ikuspegia oinarri, udalerrian dauden 20 hizkuntza ingururen artean, 12 hiztunen testigantzekin grabatutako lana da, segidan azaltzen diren herrikideekin egindakoa, hain justu.

Sunam Ahmed (Bangladesh)



Bangla da nire ama hizkuntza. Orain dela hiru urte bizi naiz

Soraluzen. Aurretik Ingalaterran egon nintzen, Londresen bost urtez. Soraluzen jende ona dago, jende jatorrarekin egin dut topo. Oso herri lasaia da. Nik gaztelera eskolan ikasi dut, HHIn (EPA). Meskita bat dago industrialdean eta bertara joaten naiz erreztazera. Gustuko dut Soraluze eta bertako jendea.

Maimona Boulaayoun Nazeu AlHoceima Rif (Maroko)



Tamazight-era eta arabiera hizkuntzak hitz egiten ditut neuk. Soraluzen bizi naiz orain dela urte eta erdi. Jainkoari esker, oso ondo sentitzen naiz Soraluzeko bizimoduarekin. Oso jende ona aurkitu dut bertan. Eta gainera, zorionez, nire seme-alabek ikasten duten eskolan ere lagun atseginekin topo egin dut.

Raja Abdul Nasir Shangoi, Jhelum (Pakistan)




Soraluzen bizi naiz orain dela hiru urte baino

gehiago. Etxean bezala sentitzen naiz hemen. Nire lehen hizkuntza urdua da, eta bigarrena punjabia, hemen euskara eta gaztelera bezala. Urdua Pakistango hizkuntza nazionala da eta punjabia Punjab probintziako hizkuntza da. Soraluzen bizi naiz nire familiarekin, semeak eta emaztearekin.




Lala Louchaa
Tinduf
(Mendebaldeko Sahara)

Hassanieraz hitz egiten dut. Sahara Mendebaldekoa naiz. Arabiera ikasi nuen nire familiarekin. Hemen, nire herrikideekin ere arabieraz hitz egiten dut. Italiara eta gaztelania ere hitz egiten ditut. Soruluzera etorri aurretik Arrasaten bizi izan nintzen, eta lehenago Italian, harrera familia batekin. Herriko paisaia oso gustuko dut, jendea oso atsegina da eta herri lasaia da.




Fatima Cherbani
Timghir,
Ouarzazat
(Maroko)

Tamazight da nire hizkuntza (hizkuntza berbereetatik dator). Tamzight-eraz agurtzeko erabiltzen den berba Azul da, Salam Aleykum esaeraren antzerakoa. 2006. Urtean iritsi nintzen Espainiara, Kataluniara, eta zehazki Tortosa herrira. 2016. urtean, berriz, Soruluzera etorri ginin. Hain justu, 2017ko apirilean urte bat bete genuen Soruluzera etorri ginela.



Cheikh Ndiayot
Diourbel edo
Ndiarem
(Senegal)

Ni Senegaldik etorri nintzen, Afrikatik. Wolofa da nire ama hizkuntza eta gaztelaraz ere badakit. Touba izeneko herrikoa naiz, Senegal barruko aldean dagoen herri batekoa hain zuzen ere. 25 urte ditut. 2012. urtetik bizi naiz Soruluzen. Hona etorri nintzen nire herritik, bizimodu ahalik eta hobekien irabaztera. Eskerrik asko!



Timothée Habegger
Tavannes, Jura
(Suitza)

Nantesko (Frantzia) Loire-Atlantique departamentuan egin nituen lehen urteak. Gero Suitzara joan nintzen ama eta bi arrebeekin. Ama hizkuntza frantsesa dut. Suitzan, suiza-aleman dialektoa ikasi nuen. Han lau hizkuntza gune daude: frantsesa, suiza-alemana, italiara eta romanchea. Ingeleseaz kalean ikasi nuen; leku askotako artistak zeuden espazioan bizi nintzelako.



Genye Rosangela dos Santos
Maceio, Alagoas
(Brasil)

Maceiotik etorri nintzen, Brasilgo hiri batetik. Nire ama hizkuntza portugesa da. Nire gurasoekin ikasi nuen hitz egiten etxean. Soruluzera etorri nintzen orduan nire mutil-laguna zenarekin eta orain nire senarra dena. Beti esaten dut Soruluze nire bigarren etxea bezala sentitzen dudala. Nire herrian bezala sentitzen naiz baina klima ezberdinarekin.




Oliveri Dangelo
Francesco
Besana de
Brianza (Italia)

Nire ama hizkuntza italiara da. Nire ama eta aita Italia hegoaldekoak dira, siziliarrak, hain zuzen ere. Monzatic eta Lecotik 20 kilometrotara, bietatik gertu bizi nintzen, Besana in Brianza izeneko esparruan. Egia esan, Euskal Herriaren antzekoa da inguru hura, dena mendiz inguratuta. Bi seme alaba ditut: Alessia eta Euken.



Anatoli Tsyganenk
Kiev (Ukrainia)

Nire ama hizkuntza ukrainera da. Horrez gainera, errusieraz eta gaztelaraz ere hitz egiten dut. Eta orain euskara ikasten ari naiz. 2000. urtean etorri nintzen lehen aldiz Euskal Herrira. Askok harritu ninduen hemen nola kontserbatzen den euskara, horren antzinako hizkuntza izanda eta baita nolako arreta eskaintzen zaion ere. Eta hori guztia guai dago!



Cris Jacas
Bartzelona
(Katalunia)

Orain dela sei urte etorri nintzen Soruluzera, 2011n. Beti nahi izan dut Bartzelonatik irten, ze dena daukazu bertan, ez dago handik irteteko beharrik, baina nik atera egin nahi nuen. Oso pozik nago. Bartzelonatik irtetea erabaki oso ona izan da, nire bizitzako onena. Eta Soruluze izatea iritsi naizen lekua gustuko dut. Natura, kalea, lasaitasuna eta zaratarik eza gustuko ditut.



Michaela Weinberg
Wittmund,
Niedersachsen
(Alemania)

Rheinland izeneko probintziatik etorri nintzen. Handik pasatzen da Rhein ibaia. Aitak Rheinisch dialektoa hitz egiten du. Baina nire anaia-arrebek eta nik ez genuen oso ondo ikasi. Lehen euskara bezala, gutxietsita zegoen. Ikasketa gabeko jendea edo maila soziokultural baxuko jendearekin lotzen zen. Eskolan ere ez zuten nahi jendea berau hitz egiten entzuterik.

Urria argazkitan

ARGAZKIAK: **UBANE MADERA ETA FRANTZISKA IRAOLAGOITIA**
 TESTUA: **UBANE MADERA**

Urriaren 6an APIen bi kamioiren arteko istripuak auto-ilara handiak sortu zituen. Denbora luzea eman zuen askok errepidean, zain. Istripuaren ondorioz, gidarietako bat larri eraman zuten ospitalera, eta handik egunetara hil egin zen.

Urriaren 7an, berriz, herritar dezente erakarri zituen Bizikale Azokak. Goizean bertako produktuak plazaratu zituzten; arratsaldean poniak eta zentxoak izan ziren, eta iluntzean, berriz, pintxo breziak.

Erretiratuak entretenituta ibili dira urrian. Haragi gisatu lehiaketa eta Logroñora irteera arrakastatsuak izan dituzte.

Bestalde, Auzoko egitasmokoak buru-belarri dabilta elkar-ezagutzeko ekimenak eginez, euskarara gerturatuz.





Elkartasun uholdea Soralezetik Aspanogirendako

Ikuspuntu guztietatik, arrakastatsua izan zen zapatuan Aspanogiren alde egin zen jaia: batutako diru kopuruarengatik eta soralezetarrek elkarte horri transmititutakoarengatik.

Lehenengo puntuari dagokionez, 3.554,50 euro batu ziren: 1.712,50 euro Iraultz Arluziagak egindako bokadillo erraldoitik saldutako pintxoei eta otarra zozketatzeko saldutako txartelei esker. Gainontzeko 1.842 euroak, berriz, jertseen, kamiseten, motxilen eta eskumuturrekoen salmentatik.

Bigarren puntuari dagokionez, berriz, "benetan apreziatzen duguna da ikustea horrenbeste jende mobilizatuta gure alde halako giro ederrean (...). Minbizia normaltasunez bizi behar da; eguneroko bizitzan dago eta oso inportantea da gaia gizarteratzea. Baztertu egin behar da sasoi batean eragiten zuen beldurra, tabu moduan hartzea, ezkutuan gordetzea... Inork ez du pozik hartuko minbizia duela jakitea, baina onar daiteke energiarekin, eta energia zoragarri hori igartzea da benetan baloratzen duguna. Hori ordainezina da. Horrek minbizia duenaren inguruko mundua aldatu egiten du", adierazi zuen Bittor Andonegik, Aspanogiko presidentek.

Kataluniako hedabide publikoen defentsan

Espainiako Gobernuak TV3, Catalunya Radio eta ACN zuzenean kontrolatzeko iragarritako asmoa, adierazpen askatasuna eta prentsa askatasunaren aurkako eraso zuzena dela iritzi diogu Pil-pilean herri komunikabideko langileok. Beraz, bat egiten dugu Kataluniako Kazetarien Kolegioak argitaratu eta Euskal Herriko hainbat komunikabidetako langileek sinatu duten agiriarekin:

“Kataluniako Kazetarien Kolegioak, 4.000 profesional baino gehiago biltzen dituen zuzenbide publikoko elkarteak, irmoki salatu nahi ditu Espainiako Gobernuak, oposizioko beste alderdi batzuen babesarekin eta Konstituzioaren 155. artikulua aterkipean, TV3, Catalunya Radio eta ACN zuzenean kontrolatzeko iragarritako asmoak.

Kataluniako Kazetarien Kolegioak uste du Generalitateko gobernuaren jabetzako hedabide publikoetan

esku hartzea aurrekaririk gabeko eraso dela demokraziarentzat eta adierazpen askatasunarentzat, hau da, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota dagoen oinarritzko eskubide batentzat, eta modu onartezin batean jartzen du zalantzan TV3 eta Catalunya Radioren profesionaltasuna. Gainera, bi hedabide horien esku hartzea informazio eskubidea urratzea da, hau da, demokraziaren oinarrietako bat, zeren bi hedabide horiek zalantzarik gabeko erreferentzia informatiboa baitira Kataluniako gizartearentzat.

Kataluniako Kazetarien Kolegioak aitortu egin nahi du TV3 eta Catalunya Radioko erredakzioen lan profesionala, eta hedabide horietako batzorde profesionalen ondoan jartzen da, zeintzuek eskatzen duten hedabideok Kataluniako ordenamendu juridiko propiora itzul daitezzen, zeinak erregulatzen dituen.

Azkenik, Kataluniako Kazetarien Kolegioak deitoratzen du Espainiako Gobernuak Kataluniako

autogobernuak sekula pairatutako erasorik zuzenena bultzatu izana, 155. artikulua aplikazioaren bidez, zeinak, de facto, Konstituzioak eta Kataluniako Estatutuak babesten duten autonomia baliogabetzen baitu”.

Pil-pilean herri komunikabideko langileak

aldizkaria@pilpilean.eus
[helbidera bidali gutunak](#)

Gripearen kontrako txertaketa

Astelehenean abiarazi zuten gripearen kontrako txertaketa kanpaina. Halakoetan ohi denez, txertoak hartzearen gaineko aldeko eta kontrako iritziak plazaratzen dira.



Lourdes Letona
MEDIKUA

Lau arrazoi emango ditut gripearen kontrako txertoa hartzeko: bata da gripea ez dela katarro bat. Bigarrena da gaixotasun serioa dela, eta konplikazio serioak ekar ditzakeela. Hirugarrena da pertsona nagusien eta gaixo kronikoen bizitza kalitatea okertzea saihesten duela. Eta laugarrena da norberak txertoa hatzen duenean gertukoak dituenak babestu egiten dituelako.



Myriam Goenaga
GURASOA

Ondo da mediku ofizialari entzutea, baina bada beste hainbat zientzialari eta aditu txertoak beste ikuspegi batetik ikusten dituztela. Beldurraren marketing galanta dago atzetik, eta ondo informatuta ez bazaude ez daukazu aukerarik: txertatu bai ala bai. Bakoitzak sentitzen duen erabakia hartu behar du, baina presiorik gabe eta ondo informatuta. Nahi duenak: La Liga para la libertad de vacunación: www.vacunacionlibre.org

Biribilgunea



Egilea: P.G.



Luis Mari Kortabarria
ERRETIRATUA

Nik neuk ez dut gripearean kontrako txertorik hartu inoiz, ez dudalako sekula gripearekin problemarik izan, egia esan. Baina bai pentsatzen dut arriskuan dagoen pertsonak (gaixo kronikoek-eta) txertoa hartu egin beharko luketela. Neure kasuan ere, ikusiko banu aurten, adibidez, txertoa hartu ez eta ondoren gripearekin gaixotu eginen naizela, hurrengo urtean hartu egingo nuke.



Jose Luis Perez
PENTSIODUNA

Neuk txertoa urtero hartzen dut gaixo kronikoa naizelako, eta txertoa eman egiten didatelako. Baina egia esan, berdin zait. Hori bai, ez naiz txertoen kontrako, ezta gutxiago ere. Eta haien aldeko kanpainarik ere ez nuke egingo. Nik uste dut garrantzitsuena dela behar diren azalpen guztiak jaso, eta gero horren arabera erabakitzea.



Maite Quintanilla

Jolastia da...

Jolas bat proposatuko dotsut! Zuri, bai, heldu izendatu horri! Itxi begiak eta ekarri izan zinan umia. Ekarri orduko amets, ilusio eta jolasak, debekatutakuak barne. Bizipozten zintuztenak. Hartu denpora, eta barruak kili-kiliz betetzen jatzuzenian, zorroztu marguak eta irudikatu papelian. Ez bildurtu, eta, batez be, laga deskantsuan epaile biboteduna!

Hara! Ezkutalekuak, zuhaitzak, arriskuak (leku emozionantiak!), aldapak, "gure etxiak" (txabolak), ura, lokatza... Hortxe jolasa! Horixe ageri da nere marrazkixan. Zurian?

Urten kalera, emon pasiada bat eta begiratu kale-baztar, plaza eta parkieri. Esan, ze leku topatu dozu ezkutatzeko, zikintzeko, eraikitzeko, ikertzeko? jolasian, gu geu izaten ikasteko!

Bapatian, kili-kilixak iluntzen dira porlanpian, plastikoz betetako parkietan, debekatutako jolasetan. Zikintzia, arriskuak hartzia; azken baten, jolastia, munduan bizitzen ikastia da.

Hezkuntza proiektuan baitan,herriko ume eta gaztien parte hartziakin, eta euren nahixetatik abiatuz, eraldaketia dator Estaziñoko parkian!

Desiatzen nago zuhaitz atzian ezkutatzeko, eta zu?



Nagore Martin, Mari Tere Igartza, Ezoz Etxeberria eta Haritz Sodupe, Gaztañerren izango diren baserritarretako batzuk.

ERREPORTAJEA


Azoka baino gehiago

Azaroko bigarren zapatuak Gaztañerre azoka dakar berarekin. Horrek esan nahi du bertan dela aurtengo edizioa, azaroaren 11n tokatzen dena. 22. aldia izango du oraingoan eta protagonista nagusiak (baserritarrak eta artisauek) buru-belarri dabilta hari begira lanean. Haiak ezezik, kuadrilek ere “hartuko” dute herria.

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN ETA ELKARRIZKETATUAK TESTUA: UBANE MADERA ETA EGOITZ UNAMUNO

Orain dela 22 urte baserritarren eta artisauren azoka moduan abiatu zen Gaztañerre, hori baino askoz handiagoa den egun bilakatu da. “Urteko egunik onena” da, adibidez, 20 urteko Mikel Recio gaztearendako. “Ez dut uste inoiz kale egin dudanik”, dio 41 urteko Aitor Unamunok. “Azoka baino gehiago da Gaztañerre”, gaineratu du 49 urteko Moises Altunak.

Hiru lagun horiendako Gaztañerre azoka berezia izateaz aparte, herritik kanpo bizi direla ere badute komunean. Eta hirurek kontatu dute egun hori Soraluzera bisita egin eta kuadrillarekin elkartzeko urteko hitzorduetako bat dela: “Bi data ditugu elkartzeko: bata da Gaztañerre azoka; bestea, herriko jaiak”, laburbildu du Altunak.



Ezoi Etxeberria, 'Arizaga' baserria "Azoka berezia da Gaztañerre"

"Siku doa, baina uzta nahiko ona da. Babak, lekak, gaztainak... denetik. Ogia eta gozoak ere egiten ditugu. Bazkarietarako enkarguak ere egiten dizkigute, beraz, zorarena izaten da. Gainera, azoka garaia da. Baina Gaztañerre berezia da, herrikoa da-eta".



Nagore Martin Ugarte, 'Egotza' baserria "Urteko azokarik onena da"

"Bezperan enbasatuko ditut gaztak, 100 bat-edo. Gazta saltzeko aukera izateaz gainera, gure lanaren aitortza ezin-hobe da jendeak norberak egindako gazta erostea. Eskerrak eman nahiko nizkieke gure lana bultzatzen eta laguntzen duten guztiei".



Esteban Laskurain, 'Osuma' baserria "Azoka indartzeko gauza gehiagorekin goaz"

"Hiru behi eta txahal bat eramango ditugu. Eta azoka indartzeko dagoen apurra eraman nahian, Oihanak barazkiak eta nik sendabelarrak eramango ditugu. Azokak apur bat galdu du, jatorrizko baserritar kutsua... Ohitura mantentzeko zerbait pentsatu behar da".



Amaia Amor, artisaua "Jendeak harrera oso ona dauka"

"Eramango ditut larruzko lanak: motxilak, alpargatak, gerrikoak... Bi hilabete lehenago hasten naiz prestatzen. Baina larri ibiltzen naiz, eta azken hilea zorarena da. Da urteko azokarik onena. Herrian ezaguna zara, jendeak harrera oso ona du, erosi egiten dute..."

Baserritarrendako lan handia

Kuadrillek ezezik, azokako protagonistek ere, baserritarrek eta artisauak, oso preziatua dute egun hori. Horren adierazle da bertaratzeko egiten duten ahalegina.

"Zorarena izaten da" dio Arizaga baserriko Ezoi Etxeberriak, "baina Gaztañerre berezia da, herrikoa da-eta".

"Urteko azokarik onena da", dio, Egotzako Nagore Martin gazta-egileak. "Eskerrak eman nahiko nizkieke gure lana bultzatzen eta laguntzen duten guztiei", azpimarratu du.

Hori bai, beti izaten da zer hobetua, eta kasu honetan ere hala uste du Osumako Esteban Laskurainek. Hark ere estimatua izan arren, uste du "Gaztañerre azokak apur bat galdu" egin duela "jatorrian zeukan baserritar kutsua (...), bueltaren bat eman beharko litzaiokie".

Kontuak kontu, guztiek ere badihardute azokan pentsatzen, bertara eraman beharrekoaz eta egunaren antolaketaz.

Bi emakume omenduko dituzte

Izan ere, goizean goiz kaleratzen dira baserritarrak, Erregetxeko postuetan produktuak eta animaliak txukun ipini, eta 09:00etarako guztia gertu izateko. 14:00ak arte eskainiko dute uda-udazken honek utzitako uzta, "siku joan arren, uzta ona", izaten ari dena, euren esanetan. Lurrak emandakoa osatzeko eramango dituzte etxean egindako ogiak eta gozoak. Beraz, oparo erakutsiko dituzte saltokiak.

Eta berdin ikusiko ditugu artisauenak ere. Egurra, oihalak, narrua... bakoitzak euren trebeziara ondoan egokitzen den lehengaiu aukeratu, eta asteak hura lantzen ibili ondoren lortutako emaitza ipiniko dute ikusgai eta salgai.

Ganaduzaleek, berriz, etxe bakoitzetik hiruna behi, eta baleude, txahalak bertaratuko dituzte. Erregetxearen fondoan kokatuko dira, zaldiz, idiz, ardiz, antzarek eta bestelakoez ere hornituta.

Eskaintza osatzen izango dira Mesedeetako egoitzakoen bisita (10:00etatik 12:30era boluntarioak behar dituzte), txistularien kalejira, eta baserriarren omenaldia, bertsolarien saioa eta Urrats Dantza Taldeko neska-mutikoen saioa.

Omenaldiari dagokionez, bi emakumeri egingo diete aitortza: Begoña Ariznabarreta Aizpiri (1930-12-01), Argateburu baserrikoari eta Martina Eguren Atxa (1931-04-15) Illordo baserrikoari.

Berritasunak

Bestalde, berritasunak izango ditu azokak. Adibidez, sendabelarrak erakutsiko ditu Esteban Laskurainek eta Oihana Laskurainek ortuko barazkiak. Eta, ardiekin batera, gaztak ere eramango ditu Haritz Sdupepek.

Hortik aparte, Sorluzen bizi den Arkaitz Arana zeanuriarrak erakustaldia egingo du egurra mozten.

Jatetxeak-eta lepo

Hori guztia, bada, goizetik eguerdi bitarterainokoari dagokionez. Horren ondoren, erabat errotuta dagoen ohiturari men eginez, mahaiaren bueltan elkartuko dira sorluzetar mordoa. Horren adierazle da, herriko jatetxeak eta elkarte gastronomikoak lepo daudela. 150 lagunetik gora elkartuko dira, adibidez, Txurrukan: “Oso beteta egoten da egun horretan. Kuadrillek urte batetik bestera erreserbatzen dute lekua; datozen gehienak Plazentziakoak dira; izan ere, oso egun berezia da Plazentzian”, dio bertako Mariaje Etxeberria ugazabak. “80 bat lagun izaten ditugu, Plazentziakoak eta kuadrillan etortzen direnak. Badaude batzuk Gaztañerre hasi zenetik hemen bazkaltzen dutela”, dio, berriz, Armendiko Xabier Iribarrek. Txoko jatetxean ere berdin dabilta; “beteta” dute guztia, “iaztik lekua hartuta duten batzuk taldeko kopurua handitu ere egin dute”, esplikatu

du Luki Hontangasek. Eta Batzokian, panorama bera, ze gainera aurten baserriarrek bertan bazkalduko dute. “Orain arte Txurrukan eta Armendin bazkaldu izan dute, txandaka, baina eskatu ziguten ea gu ere sartuko ginen hor, eta aurten hona datoz, barruko jantoki guztia eurendako dago gordeta”, kontatu du Jon Basaurik.

Jatetxez aparte, elkarte gastronomikoak ere gainezka daude. Bada Gaztañerrerako duten leku eskaera guztien artean zozketa egin behar izaten duen elkarte asko.

Eta gainezka egongo da Pil-pilean Euskara Elkarateak antolatutako herri bazkaria ere.

Aukera horiek guztiak izan arren, hala ere, bada herrian lekurik ez, eta Eibarrera edo Bergarara joan beharra izango duen koadrila bat baino gehiago.

Baba-jana, oraindik nagusi

Menuari erreparatuta, baba-jana da askoren aukera. Hala, jatetxe guztiek eskaintzen dute berau menuan, nahiz eta menu berezien aldeko joera handitzen joan.

Hain justu, baba-janerako ohitura herri bazkaritik eratorritakoa da. Bigarren urtean hasi zen Pil-pilean berau antolatzen, menu hori oinarri, eta jendeak ohituratzat hartu du. Baba-jana sakramentu guztiakin, gazta, baserriko ogia eta zela ez, gaztaina-erreak.

Azoka ikusi, zerbait erosi, lagun-arteko ederra egin, eta iluntzeko erromeria da hurrengo hitzordua azaroaren 11n, Plaza Zaharreko karparen babespean. Urteotan moduan, dantzarako lagungarri izateko, fandango eta arin-arin ikastaroa egiten dihardu Sorluzeko dantza-taldeak, “polka batzuk ere erakusten gabilta”, dio Amaia Argarate dantzariak, “eta 10 neska dabilta ikasten”, jakinarazi du hark.

Menua, bada, zabala da. Hura osatzeko baserriar jantzeko gonbitea eginda dago. Hortik aurrerako gatza eta piperra norberari dagozkie.

Boluntarioak behar dira auzolanerako

Urte moduan, Pil-pileanek hainbat ekimen antolatuko ditu azokaren bueltan: talo-postua, herri-babajana eta txosna. Ekimenok auzolanean bideratuko dituzte, eta, guztira, 50 boluntario baino gehiago beharko dira muntaia-lan eta txandetan jarduteko. Boluntario moduan izena eman nahi izanez gero; idatzi pilpilean@pilpilean.eus helbidera, edo deitu 943 75 13 04 telefonora.

Bestalde, aurten, aspaldiko partez, gaztaina erreak izango dira azokan. Gaztetxokoko gaztetxoek erreko dituzte danbolinean, azokagunean bertan.

Herri-bazkarirako txartelak

Herri-bazkarirako txartelak Iratxo goxodendan eskuratu ahal izango dira, urriaren 30etik azaroaren 9ra bitartean. Menua ohikoa izango da: babak, txerrikiak, postrea, kafea eta kopa. Txartel arruntaren prezioa: 15 euro. Ikasle edo bazkideendakoa, 12 euro; eta 12 urtetik beherakoendakoa, 8 euro.



150 lagun inguru batu ohi dira babajanean.

Afaria euskara ikasleekin

Azaroaren 13an, Gaztañerre egunean, euskaltzaleen ohiko afaria egingo dute Mahastian. Besteak beste, Berbalagun eta Auzoko egitasmoetako kideek parte hartuko dute bertan.

Kuadrillen elkargune bilakatu den eguna

Herriko kuadrilla gehienendako urteko hitzordu garrantzitsuetako bat bilakatu da Gaztañerre. Izan ere, azoka egun hori baliatzen dute aspaldiko partez mahaiaren bueltan elkartu eta lagunarte ederra egiteko. Kanpoan bizi diren soraluzetarrak bertaratu egiten dira bereziki. Hain justu, batez ere, bi egun dituzte urtean elkartzeko, herriko jaiak da bata, eta Gaztañerre da bestea.



Mikel Recio

20 urte ditu Mikel Recio (goian, eskumatik bigarrena) eta

“Urteko egunik onena da”

hirugarrena egin behar du Reusen (Katalunia) bizitzeko. Ikasketak egitera hara aldatu zentetik, Gaztañerre egunera kale egin barik etortzen da.

“Bidaia erosi dut iadanik. Urtero etortzen naiz. Aprobetxatzen dut azaroaren 12an amaren urtebetetzea ere badela, eta Gaztañerre inguruan denez, bada, familiarekin ere egoten

naiz. Baina, berez, kuadrillakoekin egotera etortzen naiz. Gaztelupe tabernan bazkaltzen dugu: baba-jana, odolostea, intxaurrek eta gazta da menua. Eta bazkaldu bezain laster hurrengo urterako lekua hartzen dugu, ze bestela akaso leku barik geratzen gara. Kanpoan bizi naiz, eta udan etortzen naiz herrira, baina orduan, sarri, jendea kanpoan egoten da oporrerengatik. Kuadrillakoak Gaztañerre egunean edo jaietan elkartzeko gara”.



Moises Altuna

49 urte ditu Moises Altunak (ezkerretik hirugarrena da bera) eta

17 daramatza Eibarren bizitzen, familiarekin.

“Saiatzen naiz urtero joaten, familiako konpromisoen arabera. Bereziki, lagunekin egotera joaten naiz, nahiz eta guztiak ez garen beti elkartzeko. Edozein modutan, bi data ditugu elkartzeko: bata da Gaztañerre eta bestea da jaietan. Gaztañerre egunean tabernaren batean lekua hartu eta bertan bazkaltzen dugu. Plazentziatik kanpo ere bazkaldu izan dugu,

“Bereziki da kuadrillarekin egoteko eguna”

bertan lekurik ez zegoelako; Mekolalden, adibidez, Julitaren jatetxea zabalik zegoenean, Eibarren ere bai, Azitainen... Niretzat azoka baino gehiago da Gaztañerre. Azokan buelta bat ematen dut, hori ere gustatzen zait-eta, baina bereziki da kuadrillarekin egoteko eguna”.



Aitor Unamuno

41 urte ditu Aitor Unamunok, eta zazpi daramatza Durangon bizitzen. Familia osoarekin etortzen da

“Egun berezia da Gaztañerre”

Gaztañerre egunean, Leire Bilbao bikotearekin eta Beñat eta Ekain semeekin.

“Bai, urtero-urtero. Ez dut uste inoiz kale egin dudarik. Nahiz eta kuadrillakoekin batzeko aitzakia handirik ez dugun behar, Gaztañerre eguna berezia izaten da kuadrillan pasatzeko. Lagun gehienok batzen gara, eta kanpoan bizi garenontzat aukera ederra da


aspaldikoekin egoteko. Bazkariari dagokionez, denetik egin dugu. Hasieran elkarteetan, gero herrikoian ere bai, herriko jatetxeetan... Inoiz aldatzen ez dena menua da. Baba gorriak sakramentoeekin, lepo egin arte. Dudarik gabe Gaztañerre eguna azoka baino gehiago da niretzat. Pozgarria izaten da herrira etorri eta horrelako giroan murgiltzea. Egun berezia da, jendeak ondo pasatzeko gogoia izaten du eta hori kalean igarri egiten da”.

Sorak zortzi talde izango ditu aurten



Zortzi talde osatzea lortu du aurten Soraluze Futbol Taldeak: lau futbol eskolan eta gainontzeko lauak maila guztietan bana. 130 bat jokalar

elkartu dira, bada, aurten Soraren bueltan. Joan den zapatuan aurkeztu zituzten talde guztiak Ezozikoko futbol zelaian.



Hirutan podiuma



“Oso-oso ondo. Hirugarren egin nuen, eta ez nuen espero, ze gainera, 300 lehiakide baino gehiagok parte hartu zuen lasterketan. 1,11 minutuko denbora egin nuen; lehenak minutu baino gutxiago atera zidan, eta bigarrenak 35 segundo. Zaila da alde hori moztea. Edozein modutan, disfrutatzea da inportanteena. Eta nik gozatu egiten dut. Gertatzen dena da sasoi onean nagoela, eta goian banago, ba hobeto”. Hala laburbildu du Ander De Luis korrikalariak joan den asteburuan Legution (Araba) jokaturako lasterketan egindakoa, Arabako koparako puntuagarria zen lasterketan, alegia. 16 kilometroko ibilbidea izan zuen aurrez aurre, Jarindo eta Albertia mendiak igotzea tartean. Hurrengo hitzordua etzi, domekan du, Galdamesen. Kilometro bertikalean oinarritutako lasterketan lehiatuko da; lehen aldia izango du ezaugarri hori duen lasterketa motan. Eta seguru azken lasterketatan erakutsitako indar bera erabiliko duela Galdameseko lasterketan ere. Izan ere, hiru lasterketatan parte hartu du, eta hiruretan lortu du podiuma.

Soraluze-Bergara

Bestalde, korrikalariendako hitzordu garrantzitsua izango da azaroaren 4an: Soraluze-Bergara lasterketa. Antxintxikak antolatuta, bidegorritik Bergararainoko ibilbidea da egin beharrekoa. 17:00etan hasiko da berau.

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
Burduntzian erraldoa bildotza
Etxeko fritoiak
Souflea
Tel.: 943 75 10 02

Armendi
Jatetxea



TXURITXU GOZOTEGIA
Astelehenerdik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbata: 08:30-15:30
Igandea: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,
premsa, pasetak,
bambotak.
Etxera eramateko zerbitzua
Jai zerbitzuak izan!

Tel.: 943 75 24 43



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

aruntza
dekorazioak
industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



Hortz klinika

27 urteko
esperientzia

Itxur Alzola Keko Guilleme
Medio-Edukatzailea Odontologoa
K.Z. 46.000.506 K.Z. 46.001.548

Erretaxio, gaitasun arazoak, ortodontia, erretaxio, estetikoa...

Enabal 1 - Tel.: 943 75 16 13



Belarrak Loradenda
eta befardenda

Loreak, etikagai ekologiko
eta osasungarriak,
kosmetika eta etxeko
garbitzeko produktu
ekologikoak

Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11



TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua,
raziokak, plater
konbinatuak,
hamburgesak,
ogitartekoak,
gosiak, pizzak...

Kalebarreneko
kafetartean
Tel.: 943 75 17 89

Enkarguak
egiten dira

TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde
tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta
www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

Mug. 635 71 34 08



Kontularitza

Aholkularitza
ABOKATUA

Errenta, zituerpenak, Administrazioa, Inak
Trafikoa, burokratia, Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/auditazioak, Kontabilitates

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Sorluze
Tel.: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

KLB6

Kalebarren 6
943 57 76 28
Mugur-eta-rentan
modu guztian

Alpa Jarna INLENO ENKIZ NB
VERO MODA



AURREZTU ENERGIA

Beratu ura eguzki izpiekin
edo airearekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



MABEL
INBAPAINDEGIA

Reparazioak, keratina
tratamenduak
Depilazioa
Re-austriarik gabeko
permanentes
Makilajia
Manikura
erdiraunkorra
Solariuma

Enabal 1
Tel.: 943 75 14 89



ARRANO
taberna

Etxeri eta gozatu
etxeko pintxoak

Etxeburueta 6
Telefona: 943 75 24 09



Soraluzeko
Kooperatiba Elkarte
1910tik zaharkitua

Janari denda, erropak,
etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenerdik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
Larunbata: 09:30 - 11:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



Euskalzaletasunaren alde:



‘Xanduli, Manduli... eman gozokiak guri!’

Badator azaroaren 1a. Berez, Domu Santu eguna, hildakoak gogoan izatekoa eta horren bueltan, kanposantura loreak eramatekoa. Bada, baina, egun horren bueltan, Sorraluzen, inguruan moduan, geroago eta gehiago hedatzen dabilen ohitura: beldurra eragiten duten mozorroak (mamuenak...) eta bereziki, burezurak dituztenak soinean jantzi, eta gozokiak eskatzen ibiltzekoa, dendaz denda zein etxez etxe. *Gaba beltza* esaten diote leku batzuetan, *Animen Gaua* bestetan, eta Halloween, berriz, bertako izena ahaztu den lekuetan.

Askoren ustea da ohitura hori Ameriketatik kopiatutakoa dela. Baina egia esan, bertan zuztarrak izan baditu. “Neguko festen ezaugarri

nagusietakoa etxez-etxeko (eta atez-ateko) kuestazio erronda da (edo izan da). Gazte taldeek baserriz-baserri eta etxez-etxeko jira egiten dute, mozorrotuta (inauterietan) edo kantuan (Santa Eskean, Olentzerotan,...) eta jakiak, dirua edo gozokiak biltzen. Europa osoan ospatzen dira mota honetako neguko festak, eta funtsean horixe da Halloween. Eta eskatzeko hamaika formula erabiltzen dira”, dio Oier Araolaza aditu eibartarrak. Sorraluzeko kasuan, ikusita ohitura indartzen zebilela, gozokiak nahi izanez gero, honako esaldia esatea eskatzen dute hainbat lekutan, adibidez, Iratxo gozoki-dendan: *Xanduli, Manduli, Kikirri!! Eman gozokiak guri!!!*

Euskeria gazte abesbatzaren kontzertua



Euskeria gazte abesbatza.

Bihar, zapatua, 20:00etan, Euskeria Bilboko gazte abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan. Kontzertua Sorraluzeko Udalak herriko Ascensio Gurrutxaga musikaria (1918-2001) omentzeko antolatutako ekitaldien artean kokatzen da, eta Ezoziko Ama Abesbatzaren 25. Urteurrenaren baitan ere bai.

Bestalde, Ezoziko Ama abesbatzak jakinarazi du azaroaren 25ean Santa Zezilia eguneko kontzertua prestatzen diharduela eta bertan abesbatzako kide izan diren denak batu nahi dituela elkarrekin argazki eder bat ataratzeko kontzertuaren ostean. Gero lagun-arteko afaria egiteko asmoa dute.

Beste hiru antzezlan eta lau zinema emanaldi



Jokin Oregi plazentziatarrak zuzendutako antzezlanaren ondoren, beste hiru ditu programatuta Udalak abenduaren 2ra bitartean. Azaroaren 4an, zapatua, da hitzordurik gertukoena; *Cuerda* antzezlan eskainiko dute, 20:00etan. Azaroaren 17an, barikuan berriz, Hika antzerki taldearen *Koadernoia Zuri* antzezlanaren txanda izango da, 22:15ean. Eta azkenik, abenduaren 2an *Enredo familiar* antzezlan ikusteko aukera izango da, 20:00etan.

Zinema saioak ere antolatu ditu Sorraluzeko Udalak datozen asteotarako. Horiek 21:00etan izango dira, hamabostean behin. Hain zuzen ere, azaroaren 2an, Antonio Cuadriren *Operación concha* filma emango dute (Espainia 2017); azaroaren 16an, berriz, Theodore Melfiren *Figuras ocultas* filma. (AEB, 2016); azaroaren 30erako, berriz, *Abracadabra* filmaren txanda izango da, Pablo Bergerrena, (Espainia, 2017). Eta bukatzeko, abenduaren 14an, Jon Garañoren eta Aitor Agirrerren *Handia* filma emango dute.

JUAN MARI ARRAINDEGIA

Merkatu plaza · 943 75 24 40

Arrain freskoa
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu

Ordutegia:
Goizez 08:30-13:00
Arratsaldez 17:00-20:00



Urritik aurrera
arratsaldetan ere zabalik!



IZZGUIRRE

Igeltzeritza



Eraikin berriak · Kalitatezko emaitza
Erreforma · Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia · 610 638 913 · 649 867 289

ELIZPE

HORTZ KLINIKA



Zure genak hartz klinika,
purta pantako teknologietan lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
bertuteko erabiltzen dugu.

Elizbura, 3 behea
SORBALLEZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Jatearen plazerra, bertatik bertara




igunekiko menua
antzerkizuzen
karta eta menuak

ogietekok eta
hamburgerna
enkargu bereziak

Emilia eta
Igorri anaien
txakurrak

Diruziak 943 75 20 55



Etxabe
Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako
produktuak
- Etxeko iripaki eta txistorrak

Etxaburua 5
Telefonoa: 943 75 23 75

BOLIA



TABERNA



Piribok, arzak,
kombinatuk
Gazte-groko festa
Tel. 943 02 95 02

MENDIZABAL

okindegia

Ogia · Prentsa · Gosariak



Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00

Larunbetak eta igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99




Iragarri hemen zure negozioa

Pil-pilean herri komunikabidea

605 70 60 86 (Egoitz) · publizitatea@pilpilean.com

Lola Couso Rodriguez “Koka”

Galzatiak Soraluzera



TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Badira zortzi urte, Lola -lagunentzako, Koka- Vilaxuan de Arousa (Pontevedra) herria laga eta Soraluzera etorri zela bizi izatera. Etortzeko arrazoia? “maitasuna” izan omen zen.

Galiza albiste izan da egunotan. Beste behin, suteengatik.

Gaia politikoa da: mendiak ez dira garbitzen, murrizketak izan dira suak itzaltzeko brigadetan, duela gutxi onartu dute erretako lurrak berkalifikatzeko aukera ematen duen dekretua ... Gogorra da esatea, baina Alderdi Popularreko jendeak interes handiak ditu lurretan eta interesatzen zaio suak piztea. Ez da sinesgarria horrenbeste piromanok batera jardutea. Hala ere, Alderdi Popularra garaile ateratzen da hauteskundeetan.

Zer da Soraluzen gehien gustatu zaizuna?

Gehien gustatu zaidana hemengo jendea da. Euskal Herriko jendea oso jende borrokalaria da. Nik hori miretsi egiten dut.

Zu ere ez zara isilik egotekoa...

Ez, gustatzen zait gauzak garbi esatea. Nire ama oso borrokalaria izan da, eta berarengandik datorkit.

“Galegoa garrantzitsuagoa da Santiagoko katedrala baino”

Seme bat galdu zuen drogaren erruz, eta, bere garaian, borroka asko egin zuen narkotrafikatzaileen aurka.

Gazteleraz aise sumatzen zaizu galzietarako azentua ...

Eta sumatu dadila luzaroan. Galegoa garrantzitsuagoa da Santiagoko katedrala baino. Geure hizkuntza da bizirik mantentzen gaituena.

Euskaraz ikasi duzu?

Zerbait bai. HHIn hasi nintzen, eta AEKn gero, baina umeak izan nituenean laga egin behar izan nuen. Orain umeekin ari naiz ikasten: zenbakiak, koloreak...

Sentitzen duzu herriminik.

Amaren eta ahizpen falta sumatzen dut. Galzietarrok badugu fama morriña sentitzekoa, baina nik ez diot astirik ematen. Zorionez, urtean hiru bat aldiz joaten naiz hara. Pepe Rubianesek, nire herriko aktore ezagunak, esaten zuen bera galego-kalataluniarra zela. Ni galego-euskalduna naiz eta oso gustura nago hemen.

1. Amarekin, bera protagonista duen Matriarca izeneko liburuaren aurkezpenean.
2. Vilaxoango koadrilarekin ezkontzako nobiari kantari.
3. Jare eta Josurekin (seme-alabak).



RENAULT
Passion for life

RENAULT GAURSAN, HILABETE HONETAN AUTOZ ALDATZEN LAGUNTZERA TEMATU GARA.

Etorri eta aukeratu gustukoena.



Renault **MEGANE**

Renault **CAPTUR**

Renault **CLIO**

ESKATU 500€-ko DESKONTUA, EROSTEAN

RENAULT GAURSA. #nosmovemoscontigo

Renault Captur gama berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,6 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 127 bitartean.

Renault Clio Berria gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,3 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 85 eta 127 bitartean.

Renault Mégane gama berria: kontsumo mistoa ((l/100km), 3,7 eta 6 bitartean. CO₂ isuria (g/km) 95 eta 134 bitartean.

Eskaintza hau Renault GaurSan da baliagarria, partikular eta autonomoentzat, baldin eta Renault Mégane, Renault Captur edo Renault Kadjar autoa erosten badute, RCI Banque SA Sucursal en España-rekin finantzatzen badute 2017ko irailaren 1etik 30era bitartean, eta edozein markatako ibilgailu bat entregatzen badute Renault berria erosteko. Barne daude zergak, garraioa, Acción Reprise eta RECSAK eskaintako promozioak. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 € Gutxieneko epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. 500 €-ko balea, autorekin lotutako egungo eskaintzez gain. Irudian ageri diren modeloak: Renault Clio Zen Energy TCe S&S 90cv, pintura metalizatu berezia eta pack look Zen-a, PSP gomendatua: 12.250€. Renault Captur Zen Energy TCe 90, pintura metalizatu, PSP gomendatua: 15.200€. Renault Mégane Zen Energy TCe 97kW (130CV), pintura metalizatu, Full Led-a, Head-up display-a, 46 cm-ko (18") aleaziozko haguak, Pack Easy Park Assist-a eta 22,1 cm-ko R-link-a (8,7"), PSP gomendatua: 19.348€.

Renault gomendatzen du

[renault.es](https://www.renault.es)

GAURSA

Otaola hiribidea, 22. Tel. 943 82 09 74. EIBAR www.gaurSa.com

Maite Narbaizaren ekarpen oparoa herrigintzari

Langilea, nekazearia, indartsua, positiboa, abertzalea, bakezalea, euskalduna, mendizalea, futbolzalea... amaigabeak dira Maite Narbaiza deskribatzeko erabil daitezkeen adjektiboak. Herrigintzan, politikagintzan eta euskalgintzan jardundakoa, oro har, bizitza ulertzeko eta bizitzeko zuen modua oso aktiboa eta eskuzabala zen-eta. Halaxe izan zen joan den hilean bizitza bat-batean amaitu zitzaion arte.

ARGAZKIAK: **ARTOLAZABAL-NARBAIZA FAMILIA, ATZEGI ETA GOIENA**
TESTUA: **UBANE MADERA**

1945ean Eibarren jaitakoa (azaroaren 3an beteko lituzke 72 urte), 1970ean ezkondu eta ondoren etorri zen Plazentziara. Segituan egokitu zen udalerrri berrira; herriko ekimenetan parte hartzen zuen eta bertako arazoekin, jendearekin... arduratzen zen.

Urrutiagi joan barik, Gaztañerre azokan makinatxo bat baserritarrek eta herritarrek izango dute gogoan, bera izan zen-eta, Gaztañerre azokaren bultzatzaile sutsua. Baina, bereziki, udalerriko baserritarren alde lan handia egin zuen 1990eko hamarkada horretan. Horren handia izan zen, ezen alkateorde eta Nekazaritzako eta Ingurumeneko



Maite Narbaiza aurtengo uztailean, Getarian.

zinegotzi zela, orduko gobernuaren aurrekontuak ez babestearren karguotatik bota zutenean, 56 baserritarrek gutuna bidali ziotela alkateari Maite Narbaizaren jarduna babesten. Eta osoko bilkurara 100 lagun baino gehiago bertaratu ziren hari babesa adierazteko.

Atzegin egin zituen 16 urte Debabarreneko ordezkari moduan, Pil-pilean Euskara Elkartearen sorreran berau izan zen babesleeta bat, Korrikan lekukoa

eraman zuen behin baino gehiagotan, Plazentziako Realzaleen taldeko kide, Berbalaguna, Deparkeleko kolaboratzaile...

Halakoxea zen Maite. Eta halaxe gordeko dute bihotzean hura ezagutu zutenek. Eta haiei esker-ona helarazi nahi die Artolazabal-Narbaiza familiak: “Gure emazte eta gertutasuna adierazi diguzuen plaentxiar guztioi, eskerrik asko bihotz-bihotzez”.



Aloña Agirre, Atzegiko teknikaria

“Maite adimen desgaitasuna zuen persona baten koinata izanez hasi zen Atzegin aktiboki parte hartzen. Eta urteetan energiaz lan egin zuen, eskualdeko familien ordezkari gisa. Bailarako adimen desgaitasuna duten pertsonentzat, haien familientzat eta baita boluntarioentzat ere erreferente garrantzitsua zen. Bere gizatasuna,

indarra eta gertutasuna azpimarra daitezke solidaritatean oinarriturik Atzegin egin zuen lanaren inguruan. Baina bereziki nabarmenduko nuke gizatasun handiz egiten zuela lan. Horren adibide garbi bat da lankide ginela, batzarren bat izan ondoren etxeratzen nintzenean (Donostiara), beti jasotzen nuela Maiteren mezu bat galdezka ea ondo iritsi nintzen”.



Roke Akizu, EAko zinegotzia

"Sekula ez dot ahaztuko nola deitu zoztan 2006ko uda hartan. Bere energia kontajioso horrekin, bilera

batera gonbidatu ninduan eta galdetu zoztan ia nola ikusiko neban urtebetara egingo ziran udal-hauteskundeetara Eusko Alkartasunaren izenian alkategai aurkezteko asuntua. Baitz, bilerara joango nintzala erantzun eta kolgatu nebanian, neurekiko banekixan baiezkoa izango zala. Bilera hartara iritsi nintzanean, han zeren Jesus, Roman, Aitor eta Mikel. Oso gustora egon ginan eta harrez gero, bigarren familixa bat topatu izanaren sentimendua daukat. Oso garbi ikusten zuen Sorraluzen aldaketa bihar zala eta eduki genduzen

emaitzak edukita, aldaketaren parte izatia be harrotasunez bizi zeban.

Sorraluzeko EH Bilduren sorreran be, bere marka diran ilusioa eta alaitasuna barreiatuz, laguntzeko beti gertu egoten zan eta horretan be parte hartu zeban. Bilguneko partaide nekazina izan zan, bilkide baino gehiago danon amatxo izateraino.

Sarri entzuten da, pertsona heldu ahala, otzandu egiten dala; erronka berriak, bide berriak, urratziari laga egiten dotsala. Maite Narbaizaren kasuan ez, ez da horrela izan".



Pello Urizar, EAko idazkari nagusia

"Urte asko dira Maite ezagutu nuela, Gazte Abertzaleakeko ekimenetan bere seme Aitor eta alaba

Ainhoarekin ibiltzen nintzenetik, eta Maitek proiektatzen zuen indarra hasiera-hasieratik nabaritu nuen. Bilera, batzar eta ekitaldi askotan egiten nuen topo Maite eta Jesusekin, eta izaera desberdintasunak nabariak ziren arren -indartsua Maiterena eta lasaiagoa Jesusena- biak ala biak Euskal Herriaren alde lana egiteko borondate berdina zeukatela argi nabarmentzen zen.

Beti zegoen prest konpromisoak hartzeko, eta ez soilik politikaren maila teorikoan edo eta Eusko Alkartasunaren barne

antolakuntzan. Beti prest eraikitzeko, hobetzeko, gizarte duinago bat sortzeko. Beti prest herriarentzat lan egiteko, baina hori ongi dakizue plazentziatarrok.

Kennedy presidente estatubatuarrak esan omen zuen behin, ez genuela galdetu behar zer egingo duen herriak gure alde, baizik eta gu herriaren alde zer egiteko prest gauden, eta, zintzoki, Maite esaldi horren pertsonifikazioa zen.

Zure grina, adorea eta konpromisoa faltan botako ditugu, Maite. Beti izango zaitugu bihotzean, burnizko anderea".



Maite Narbaizaren berbalagun taldea

"Orain dela hilabete bat gure ondotik joan zinen, hutsune handia utzi duzu gure artean... eta guk nola edo hala eskutitz honen bidez gogoratu nahi zaitugu.

Maite, bizia eta baikortasuna transmititzen zenuen, emakume ona, alai, laguntzeko beti prest, solaskide eta lagun ezin hobea...

Herriko eragile oso konprometitua zinen, zurekin beti zegoen gairen bat hitz egiteko. Berbalagunen lehenengo eguna gogoratzen dugu... zu eta Enkarna, gure bidelagunak, laster konfiantza eta erraztasuna hartu genuen hitz egiteko, zuen ilusio eta maitasunari esker. Maite, bihotz-bihotzez, eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Zure berbalagunak".

Berba horiekin eskerrak eman eta agurtu nahi izan dute euskara erabiltzen laguntzeko bidean bidelagun izan duten Maite Narbaiza. 10 urte egin zituen euskararen aldeko zeregin horretan, argazkian agertzen diren honako berbalagun taldearekin, hain justu ere; ezkerretik eskumara: Pili Espiga, Michaela Weinberg, Erik Desert, Kristina Arizaga, Enkarna Arrizabalaga, Arazeli Maiztegi, Mariaje Iparragirre, Tere Ariznabarreta, Patxi Hernandez, Mari Karmen Zarrabe eta Aidor Aizpuru.

ZORION AGURRAK



Ekain

Urriaren 19xan, 5 urte. Zorionak! etxekuen partez!



Enaitz Arriola Romero

Azaroan 12an 3 urte!!! Zorionak!!! Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Mikel eta Sara

Urriaren 8an eta azaroaren 3an urteak betetzen dituzuelako. Etxekuen partez, maitte zaittuztegu!

JAI OBERRIAK



Udane Castelos da Silva

Irailaren 9an jaio zen.

KINTADAK



1952. urtean jaiotakoak

Irailan egin zuten bazkaria, Txurrukan.



1967. urtean jaiotakoak

Irailaren 30ean egin zuten bazkaria, Txurrukan.

IRAGARKI LABURRAK

Lan bila

Zaintzailea

Neska arduratsua eta esperientziaduna naiz eta prest nago nagusiak zaintzen lan egiteko. 675 99 16 64 (Norma).

Salgai

Sotoa

80 m2ko sotoa, argitsua. Paregabean dantza, yoga, taichi, pintura eskolak emateko, akademia jartzeko. Bulego teknikoa. Tel. 610 87 18 51.

Lan bila

Zaintzailea

Emakume langilea eta atsegina lanerako prest: garbiketa lanak, pertsona nagusiak zaindu... Ondarrun bizi izan naiz eta euskara pixka bat ulertzen dut. 632 33 77 60 (Ilham).

Salgai

Garajea

Garajea saldu nahiko nuke (bi marra), Etxaburueta-Estazioko etxebizitzetan. Prezioa: 9.500 euro + BEZ-a. Deitu 656 94 48 81 zenbakira (Jose Angel).

Lan eskaintza

Zaintzailea

Pertsona behar da pertsona nagusi bat zaintzeko. Ordu batzuetarako jarduna. Mug. 636397694.

Salgai

Etxebizitza

70 m2ko etxebizitza, Ezosi Etorbidean. Hiru balkoi eta trastelekua ditu, oso eguzkitsua da. Berritzeko dago. Prezioa: 60.000 euro. 659 55 41 30 (Onar).

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Jaiotakoak

Alazne Jaione Caceres Garcia
 Udane Castelos Da Silva
 Gaizka Carrascosa Gojenola

Hildakoak

Jose Larrañaga Urresti

ZOKETA

**Ikasbidaiaiko saria**

Mila Moro izan da 2018ko ikasbidaiko zozketako saria irabazi duena (200 euro).

ESKELAK

I. URTEURRENA

Martin Iñurrieta Goikoetxea



2016ko urriaren 11n hil zen, 89 urte zituela.

Bertsozale zinenez
bertsotan agurra,
eskaini nahi dizugu
gertutik gertura.

Ingurukoen poza
abertzale zintzoa,
lagunen lagun ona,
kontalari iaioa...

Iñurrieta sendia

I. URTEURRENA

Jose Blanco Fernandez



2016ko urriaren 20an hil zen, 75 urte zituela.

Udazkeneko orbeekin batera dator zure oroitzapena gugana.
Gure bihotzetan zaude betiko.

Etxekoak

IV. URTEURRENA

Luis Maria Heriz Garmendia



2013ko azaroaren 7an hil zen.

Hizkuntza bat ez da galtzen dakienak ikasten ez duelako,
dakienak hitzegiten ez duelako baizik

Etxekoak

Zoriontzeko, esker ona adierazteko,
jaiotzen berri emateko...

605 706 086

(deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.com

XXII. GAZTAÑERRE AZOKA

Azaroak 11, zapatua AZOKA EGUNA

- 09:00 Azokaren irekiera
10:30 Azokara aittitta-amamak Alkarriekin
11:15 Txistularien kalejira
12:00 Antzinako zerratokiaren erakustaldia azokan
12:30 Ekitaldia azokan: dantza saioa, omenaldia, sari banaketa eta bertsolariak
13:30 Motozerrarekin egindako egurrezko irudien erakustaldia azokan
15:00 Herri-babajana karpan (txartelak: Iratxon)
15:00 Bazkaria Gaztetxean (txartelak: Gaztelupen, Arranon eta Edurtzan). Ondoren jolasak
19:00 Erromeria Iratzar taldearekin karpan
23:00 Erromeria Fan&Go taldearekin Gaztetxean eta ondoren DJ C.O.NPOTA

Azaroak 8, eguaztena

18:30 Talo ikastaroa Lagun Maitean
(Izen-ematea Pil-pilean)

Azaroak 9, eguena

- 10:30 Baserriko Gastronomía hitzaldi-tertulia erakustaldia Eguneko Zentroan
17:00 Jose Maria Soroaren kontzertua Egoitzan

Azaroak 10, barixakua

- 17:00 Artisau eta talo tailerra Eguneko zentruan
17:00 Bingo berezia opariekin Egoitzan

Azaroak 13 astelehena GAZTAÑERRE EGUNA

- 10:30 Gazta dastaketa eta koplak kantaldia Eguneko Zentroan
14:30 Gaztaina jana kantuz eta baserriaren erakusketa Plaentzi Herri Ikastetxean
16:30 Gaztaina jana, Pablo Arruabarrenak akordeoiarekin alaituta, Egoitzan
17:00 Txorimalo txapelketa karpan, Ludoteka eta Kukumixorekin
20:30 Gaztañerre eguneko afaria, elkarteren batean (Izen-ematea: Pil-pilean - AEK)



ALKARRI

agusti



Porrondon
ludoteka



Ganbarape
gazteleku

